



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 9a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00050. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tresnak ezar ditzan “Ondareari buruzko Europar Jardunaldia” gazteentzat eta nerabeentzat eskuragarria izan dadin, eta hezkuntza-baliabideak jar ditzan Nafarroako kultur ondarea gazteei hurbiltzeko. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00118. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa bultza dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00120. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko udalentsat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00121. Erabakia, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00125. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezagutzera eman dezan zer politika abiarazi diren etxebizitza publikoaren arloan. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen da izapideak has ditzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 11-25/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeei. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 11-25/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

- 11-25/MOC-00115. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita moratoria bat deklarazian biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00275. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00276. Galdera, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00278. Galdera, osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00280. Galdera, Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren gaineko salaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00281. Galdera, LH Dualeko ebaluazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00282. Galdera, LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00283. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00284. Galdera, goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00285. Galdera, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espeditenteei eta ezarritako zehapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00286. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00287. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-25/MOC-00050. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita tresnak ezar ditzan “Ondareari buruzko Europar Jardunal-
dia” gazteentzat eta nerabeentzat eskuragarria izan dadin, eta hezkun-
tza-baliabideak jar ditzan Nafarroako kultur ondarea gazteei hurbiltzeko**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-
luan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarro-
ako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko urriaren
2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako
Gobernua premiatzen baita tresnak ezar ditzan
Ondareari buruzko Europar Jardunaldia gazteentzat
eta nerabeentzat eskuragarria izan dadin, eta
hezkuntza-baliabideak jar ditzan Nafarroako kultur
ondarea gazteei hurbiltzeko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du behar diren erraztasun eta tres-
na guztiak ezar ditzan "Ondareari buruzko Europar
Jardunaldiak" gazteen eta nerabeen eskura jar-
tzeko, gazteenendako jarduera espezifikoak eginez
eta haurrendako nahiz nerabeendako ekimenak
landuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Kultura Departa-
mentua premiatzen du Nafarroako Gobernu-
ko beste departamentuekin lankidetzan ikastetxeei
eskain eta eman diezazkien hezkuntza-baliabideak
eta -tresnak Nafarroako kultur ondarea gazteenei
hurbiltzeko, Nafarroako ondarearen gaineko
"ikaskuntza-egoera" espezifikoak sortuz.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du toki-
erakundeek aktiboki parte har dezatela gazte eta
nerabeei zuzendutako jarduera irisgarrien progra-
mazioan, Ondarearen Europako Jardunaldietan eta
kirol-ekintzetan, Kultura, Kirol eta Turismo Departa-
mentuarekin lankidetzan".

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00118. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua
premiatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren
28ko 26/2016 Foru Legearen aldaketa bultzatzen**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafa-
rroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko
urriaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez
Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sozietateen
gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016
Foru Legearen aldaketa bultzatzen. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du Sozietateen gaineko Zergari
buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea
aldatzea sustatzen, bermatzeko ezen lege
horretako hurrengo xedapen hauen kasuan ere
ezinezkoa izan den Zigor Kodearen arabera
epai irmo bidez debekua ezarria duten pertsonen
eta entitateen zerga-pizgarriak baliatzea:

– IV. tituluko VII. eta VIII. kapituluetan aurreikusitako salbuespen guztiak.

– IV. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako kenkari guztiak.

– IV. tituluko XIII. kapituluan aurreikusitako zerga-oinarriaren murrizketa guztiak.

– VI. tituluko II. kapituluan aurreikusitako hobari guztiak.

– VI. tituluko IV. kapituluan aurreikusitako pizgarriengatikoen kenkari guztiak.

– 107. artikuluan aurreikusitako talde fiskalaren zerga-oinarriaren murrizketa guztiak eta 111. arti-

kuluan aurreikusitako talde fiskalen kuota osoaren kenkariak eta hobariak, VI. tituluko II. eta IV. kapituluei buruzkoak.

– Hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako zerga-onura guztiak.

– Hogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkari guztiak.

– Hogeita hirugarren kenkari gehigarrian aurreikusitako kenkari guztiak”.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00120. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko udalentsat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen baita lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko udalentsat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri baten obra. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Lehenbailehen has dezan Queiles ibarreko herrietarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako

institutu berri baten obra, eta horretarako beharrezkoak diren administrazio-prozedurak susta ditzan.

2. Proiekturako kokapenik egokiena eta bideragarriena hauta dezan, kontuan hartuta irisgarritasuna, mugikortasuna, azpiegituren hornidura, zerbitzu osagarrietarako sarbidea eta lurralde-kohesioa.

3. Izapideak arindu ditzan, proiektuaren lizitazioa 2026an egiten dela bermatzeko, obrak 2027an esleitu eta has daitezen”.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00121. Erabakia, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premia- tzen baita aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko
urriaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez
Estatuko Gobernua premiatzen baita aintzat har
dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa
dela-eta egindako eskaria. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua
premiatzen du aintzat har dezan Nafarroako Gober-
nuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria
eta, hartara, egin beharreko aldaketak egin ditzan
plangintza elektrikoaren zirriborroan”.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00125. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ezagutzera eman dezan zer politika abiarazi diren etxebizitza publikoaren arloan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan
ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamen-
tuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako
Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 2an
onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako
Gobernua premiatzen baita ezagutzera eman dezan
zer politika abiarazi diren etxebizitza publikoaren arlo-
an. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako,
Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua
premiatzen du etxebizitza-politiken komunikazioa
indartu dezan, ezagutzera eman daitezen tentsio-
peko zonaldeak, Etxebizitza Ordainerraza izate-
ko Eskubideari buruzko Foru Legea eta herritarren-
gan eta inplikaturako eragileengan dituen inplikazio
praktiko guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko
toki-entitateak animatzen ditu etxebizitzako, Gazte-
riako eta Migrazio Politiketako Departamentuarekin
lankidetzan jardun dezan etxebizitza ordainerrazen
parke publiko bat eraikitzeko, etxebizitza sustatuz,
lurzorua Nasuvinsari lagatuz, tentsiopeko zonaldee-

tan berariazko neurriak aplikatuz edo tresna fiskalak
ezarriz, hala nola hutsik dauden etxebizitzak gaine-
ko zerga.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du Tentsiopeko Etxebizitza Merka-
tuaren Zonaldeetan ikuskapen-kanpainak egiteko
egutegi publiko bat ezar dezan 2026ko urtarrilaren
1a baino lehen, zeinetan finkatuko baitiren lehenta-
sunezko jarduketa-eremuak eta -aldiak, eta zeina
behar bezala jakinaraziko zaien herritarrei informa-
zio-kanpaina baten bidez. Orobat, Nafarroako
Gobernua premiatzen du, ekitaldi bakoitza amai-
tzean, eta Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren
Zonaldeen aitortpenak irauten duen bitartean, urtero-
ko txosten bat egin dezan, zeinetan adieraziko baiti-
ra zonalde horietan egindako ikuskapen-kanpainen
emaitzak, egindako ikuskapenen xehetasunak, iza-
pidetutako espedienteak eta ezarritako zehapenak
zehaztuta”.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00119. Mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen da izapideak has ditzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeke obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 2an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako kontseilaria premiatzen baita izapideak has ditzan Belateko tunela bikoizteko obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko, eta Etxebizitzako kontseilaria premiatzen da izapideak has di-

tzan Erripagañako BF1.1 azpilurzatian babes ofizialeko alokairurako 46 etxebizitza eraikitzeke obra-kontratuaren kaltegarritasuna deklaratzeko. Mozioa 2025eko irailaren 26ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeei

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 2an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta

governuz kanpoko erakundeei. Mozioa 2025eko irailaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 2an egindako bilkuran, ezetsi egin du Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan. Mozioa 2025eko irailaren 30eko 109.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00115. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita moratoria bat deklara dezan biometanizazio- edo biogas-plan- tak instalatzeko

LANDA GARAPENeko ETA INGURUMENeko BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak
2025eko urriaren 3an onetsitako erabakia, zeinaren
bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita
moratoria bat deklara dezan biometanizazio- edo
biogas-plantak instalatzeko. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko
Departamentua premiatzen du moratoria bat dekla-
ra dezan gure lurraldean biometanizazio- edo bio-
gas-plantak instalatzeari dagokionez, instalazio
horien hedapen ordenatua eta jasangarria bermatuko
duen arau-ekosistema egokia izan arte”.

Iruñean, 2025eko urriaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00275. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietatearekin eginiko kontratuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera idatzi hauek egin ditu (11-25/PES-00275):

Zenbat kontratu egin ditu NICDO enpresak Adentro Construimos SL merkataritza-sozietatearekin? Zein izan da horietako bakoitzaren zenbatekoa? Eta zein izan da helburua? Zer kontratazio-prozedura baliatu da horietako bakoitzean?

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderekin lotuta:

Nafarroako Gobernuak Navarra Impulsa Cultura Deporte y Ocio SL (NICDO) sozietateari helarazi dio Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Nafarroako Parlamentuko Presidentetzari eginiko informazio-eskaera (11-25/PES-00275).

Informazioaren konfidentzialtasunaren babesean, eskatutako informazioa atxiki dugu. Kontratu bakoitzaren zenbatekoa eranskinean berean dago, baita xedea ere. Erabilitako kontratazio-prozedura munta txikiko kontratuaren modalitatea da.

Ildo horretatik, jakinarazten dizugu zuk finkatutako egunean eskuratuko duzun informazioa konfidentziala dela, eta ez diezula haren edukia hirugarrenei jakinarazi behar, idazkian onartzen duzun bezala.

Ramón Urdiáin Esparza

Zuzendari kudeatzailea

Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)

ADENTRO CONSTRUIAMOS-EK NICDO-RI EGINDAKO FAKTURAZIOA (zenbatekoak BEZik gabe)

2021. URTEA

2021/12/31	Baluarteko bulegoak eraberritzea - Administrazioa eta Komunikazioa	37.491,44
2021/12/31	Baluarteko bulegoen altzariak	14.841,00

2022. URTEA

2022/01/01	Bulegoetako hezetasunak konpontzea eta trenkada kentzea	5.998,09
2022/05/25	Baluarteko bulegoaren erreforma - Gerentzia	7.231,56
2022/08/30	Verduarte jatetxeko zorua birjartzea	29.159,97
2022/10/31	Baluarteko fatxadako konponketa	2.477,25

2023. URTEA

2023/03/31	Baluarteko Departamentu komertzialaren bulegoaren erreforma eta zenbait konponketa	13.554,80
2023/07/17	Baluarteko Departamentu Komertzialaren bulegoko altzariak	2.663,75
2023/08/16	Baluarteko lan-aulkiak berritzea	3.219,75
2023/11/30	Baluarteko Departamentu Komertzialaren bulegoko altzariak	4.213,36

2024. URTEA

2024/01/31	Baluarteko lan-aulkiak berritzea	3.219,75
------------	----------------------------------	----------

2025. URTEA

2025/03/01	Bulegoak bereizteko trenkada	1.893,32
------------	------------------------------	----------

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00276. Galdera, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00276 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Building and Architecture Institute-k eman beharreko titulu berekiari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

BAI titulu berekiari buruzko informazio guztia herritarren ikusgai dago BAI Institutuaren web-orriaren bitartez (<https://bai-institute.com/>).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00278. Galdera, osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak osasun-instalazioetako tenperatura altuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari M^a Teresa Nosti Izquierdo andreak honako galdera bat (11-25/PES-00278) egin du, idatziz erantzun zekion, zenbait ospitaleetan (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa, Bideko Ama Birjina, Lizarra eta Tuterako ospitaleak) 2025eko udan izandako egoera termikoari

buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasune-ko kontseilaria naizen aldetik, hau jakinarazten dut:

1.- Zer txosten tekniko eta tenperatura-erregistro dauka Nafarroako Gobernuak ospitaleetan (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, Bideko Ama Birjina, Lizarra eta Tuterako ospitaleetan) 2025ean daukaten egoera termikoari buruz?

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan neurtutako tenperatura-erregistroak 30^otik goitikoak izan dira zenbait egunetan eta egunaren erdiko orduetan. Mantentze-lanetako langileek tenperatura etengabe neurtzeko sentsoreak paratu dituzte zenbait kokapenetan neurketei jarraitutasuna emateko.

Reina Sofia ospitalea (RSO) klimatizatuta dago Aire Tratatzeko Unitateen bitartez Kirurgia Bloke Berriaren eremu osoan (erditzeko gelak, ebakuntza-gelak, esterilizazioa, korridoreak, aldagelak eta biltegiak). Ospitalearen eraikin zaharrean klimatizatuta daude pazienteen ospitalizazioko gela guz-

tiak, kontsulta guztiak, bulego mediko guztiak eta administrazio-bulegoak, baita ospitalizazio-korridoak ere. Eraikin honetan klimatizazioa emari aldakorreko aire girotuko makinaren bitartez egiten da (Airea Tratatzeko Unitateak eta bentilokonektoreak). Klimatizagailuen, hotz-zirkuituen (hotz-taldeak eta ponpak) eta bero-zirkuituen (galdarak eta ponpak) bulkatze eta itzulerako tenperaturak egunero egiaztatzen dira (eta horrela dago erregistratuta GIM aplikazioan). Kokapen berezietan, hala nola ebakuntza-geletan, ZIUko boxeetan, tratamendu-geletan eta gela zurietan kontsignak, tenperaturak, presioak, hezetasun erlatiboak, ordutegiak eta abarrak kontrolatzen dira. Toki berezi horietan baino ez da giro-tenperatura erregistratzen.

García Orcoyen ospitalean (GOO) klimatizazio-kontsignak mantentzen dira eremu hauetan:

- Kontsulten eraikina: korridoreak, kontsultak eta bulegoak, errehabilitazio-gimnasioa, errehabilitazioko hidroterapia-igerilekua, farmazia, erradiologia; kontsigna programatu egiten da, eta erabiltzaileak ezin du aldatu.

- Laborategian unitate autonomo independenteak dira lokal bakoitzerako. Ez dago kontrol zentralizaturik. Erabiltzaileak kontsigna pizten, itzaltzen eta aukeratzen ahal du.

- Artxiboetan, ordutegiaren barruan, erabiltzaileak makina pizten edo itzaltzen du, eta kontsigna aldatu ere egiten du.

- Biltegian, biltegiko bulegoetan ordutegi bera dago, baina kontsigna nahierara aldatzen ahal dute.

- Sukaldean aire girotu autonomoa ere badute garbiketa-trenerako, eta zerbitzuan berean kudeatzen dituzte piztea/itzaltzea eta kontsigna.

Gainera, gelan guztietan berokuntza-termostatoa dago honako eremu hauetan: Ospitalizazioko eremua, Pediatriako Ospitalizazioa, Pediatriako neonatologia eremua, Etxez etxeko Ospitalizazioa, Erditzeak, Zesareen ebakuntza-gela, ZIU-ABU, 2. solairua, Larrialdiak, Larrialdietako jantokia, Behaketa, Ebakuntza-gela, endoskopiak, Kirurgia Handi Anbulatorioa, Esterilizazioa, Osasun Mentaleko Zentroa, Aldagela orokorrak, 3. solairuko logela medikoak, 1. solairuko logela medikoak, 1. solairuko bulego medikoak, logelen ondoan. Funtzionamendu-ordutegiaren barneko hozteari dago-kionez, pazienteek makinak pizten eta itzaltzen ahal dituzte.

2.- Berehalako zer neurri ezarri ditu Osasun Departamentuak instalazio horietan (klimatizagailu eramangarriak erabiltzea, eremu aireztatuak gaitzea, espazio kritikoen erabilera mugatzea, pazienteak birbanatzea...)?

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, 2025ean, A-NOUko kirurgia-blokeko klimatizazioa eraberritzen ari da, bai eta espetxe-moduluko gelak hornitzeko lana ere H3 unitatean. Bi jarduketok H2 unitatearen gainean esku hartzera behartzen dute, horregatik, ezinezkoa izan da gelak banakatzeko planera itzultzea. Gainera H2 eta H3 unitatean klimatizatzen ari dira.

Reina Sofia ospitalean eta García Orcoyen ospitalean ez da neurririk hartu behar izan.

3.- Ofizialki dokumentatu al da gehiegizko tenperaturari zuzenean egozten ahal zaion gorabehera klinikorik edo laneko gorabeherarik (zorabioak, erorketak, larrialdi medikoak, jarduerak bertan behera uztea...)?

Ez dago jasota.

4.- Zertan da klimatizazio integralerako 2022ko urrian lizitatutako kontratua? Zer egunetan esleitu zen, zer enpresa edo aldi baterako enpresa-elkar-terri, zer prozedurarekin eta zein da betetze-maila 2025eko ekainean?

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan kontratua ez zen izapidetu. Gaur egun kontratu hori lantzen ari da oraindik. RSOen eta GOOn ez dago kontraturik lizitatuta.

5.- Gobernuak eman al dezake kronograma oso eta loteslerik, gabezia hori duen Nafarroako ospitale bakoitzerako amaiera-datarekin?

Oraindik ez. Klimatizazioaren arazoari konponbideak emateko lanean ari gara, baina ospitaleko azpiegiturretan eragina duen arazo globalago baten zati da; izan ere, bestelako inbertsioak lehenestea markatu du epe luzeko eboluzioa, eta arazoa azpiegitura-plan global batez baino ez da ebatziko, eta hartarako epe ertaineko finantza-konpromisoa behar da, bermeekin (TIPen moduan) eta plantillak indartuta, planaren ezarpena eta exekuzioa planifikatu, kudeatu eta koordinatzeko.

6.- Zer aurrekontu-partida berezi daude jasota 2025erako Nafarroako Aurrekontuetan horretarako, eta zer inbertsio aurreikusten da 2026rako?

Partida berezi gisa, 2025ean:

- 543000 52200 6020 312817 (E) Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko H2 eta H3 Klimatizazioa;

partidak 242.000 euroko hasierako aurrekontua du. Nolanahi ere, zentro guztiak gutxieneko zenbatekoak dituzten partidak daude, besteak beste, premia horiei erantzuteko, baina partzialak izanen dira halere, 5. galderan esan bezala.

2026an aurreikusitako inbertsioei dagokienez, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak egin arte itxaron behar da; hortaz, informazioa ez dago eskura aurreproiektua aurkeztu arte.

7.- Gobernuak aurreikusita al dauka bere gastu-lehentasunen gaineko politika berrikustea eta al bait lasterren ezartzea behin-behineko konponbideak, behin betiko klimatizazio-instalazioa osatu arte?

Nafarroako Gobernuak kezka eta jarduteko beharra agertu du. Nolanahi ere, horrek denbora eta inbertsio handia eskatzen du. Ekonomikoa eta kudeaketa arlokoa. Era horretako ospitale batean

obrak egitea ospitalea jardunean dagoenean handicap bat da. Ospitalizazio-solairu bat klimatizatzek, kasurako, espazio hori gabe gelditzea dakar, eta oheak jada egokituta dagoen beste eremu batera eramatea, edo eremu bat horretarako egokitzea edo jarduera txikiko sasoian egitea, eta hori uda ere ez da jada. Orobat, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa eraikin bakartuez osatua dago, eta ondorioz, ezinezkoa da obrei osoki heltzea eta atalka egiten dira horregatik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00280. Galdera, Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren gaineko salaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porras jaunak Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren gaineko salaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porras jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00280 informazio-eskaera egin zion Amparo López Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Zenbat salaketa, eta zer motatakoak, erregistratu dira 2024ko urtarrilaren 1etik aitzina Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarak nahasita dauden gertakariak direla-eta?

Tabla 1. Delitos.

Tipo Delito	2024	2025	Total
Delito de amenazas	4		4
Delito de coacciones	1		1
Delito de daños		1	1
Delito de Daños en vehículo	1		1
Delito de hurto	1	2	3
Delito de lesiones	6	3	9
Delito de malos tratos de obra sin lesión	1		1
Delito de robo con fuerza en las cosas		3	3
Total general	14	9	23

Zenbat polizia-jarduketa jaso dira idatziz, eta zer motatakoak, 2024ko urtarrilaren 1etik aitzina Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarak nahasita dauden gertakariak direla-eta?

Tabla 2. Incidentes registrados por las patrullas operativas (2024 -2025)

Tipo de intervención	2024	2025	Total
Traslado de menores	141	53	194
Actuación con menores	42	27	69
Atención ciudadana	28	31	59
Apoyo a policía foral	12	25	37
Denuncia penal	8	5	13
Peleas o reyertas	4	3	7
Delitos contra el patrimonio	2	3	5
Identificación de persona	2	1	3
Incendios	1	1	2
Recogida de Denuncia penal volante	1	1	2
Otras denuncias		1	1
Apoyo		1	1
Custodia de detenido		1	1
Traslado de persona a dependencias de policía nacional a efectos de identificación	1		1
Labores preventivas de protección a víctimas		1	1
Traslado/conducción de detenido.		1	1
Orden de detención		1	1
Incautación de drogas (sin denuncia)		1	1
Total general	242	157	399

Aitzineko taulan, Foruzaingoak Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko instalazioetan esku-hartzeren bat egindakoaren gaineko datu guztiak daude. Ondotiko taulan indarkeria —fisikoa edo hitzezkoa— aipatutako gertakariei buruzko datuak daude, herritarren segurtasunerako garrantzitsuak baitira.

Tabla 3. Incidentes en los que existen episodios con violencia verbal o física:

Mes	2024	2025
01.Ene	7	3
02.Feb	1	1
03.Mar	1	2
04.Abr	0	4
05.May	1	6
06.Jun	2	2
07.Jul	2	4
08.Ago	4	0
09.Sep	4	4
10.Oct	3	0
11.Nov	3	0
12.Dic	0	0

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 213.6 artikuluan xedaturikoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

11-25/PES-00281. Galdera, LH Dualeko ebaluazioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaier andreak LH Dualeko ebaluazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00281 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

1. Ikasleek prestakuntza enpresak hasi aitzine-tik, ikastetxeak eta enpresak enpresan garatuko diren helburuak, gaitasunak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak erabakitzen dituzte, prestakuntza-zikloko curriculum ofizialaren arabera.

Enpresako Prestakuntza Plana egiten da, eta jarraipen eta ebaluaziorako gida da.

Irakasleek zenbait metodo erabiltzen dituzte, hala nola idatzizko probak, tailerreko praktikak, proiektuak eta abar, ikastetxean garatutako ikas-kuntzaren emaitzak ebaluatzeko.

Enpresako tutoreak enpresan garatutako ikas-kuntzaren emaitzak ebaluatzen ditu erabakitako irizpideetan oinarrituta.

Enpresako tutoreak zuzenean kalifikatzen ez badu ere, bai egiten duela ebaluazio-txosten bat, eta azken kalifikaziora gehitzen da.

Ikastetxeko tutoreak modulua ebaluatzeko azken arduraduna da, baina enpresako tutorearen txostena kontuan hartzen du.

Askotariko tresnak erabiltzen dira ebaluazio koordinatua errazteko.

Orain arte egiten den bezala, ebaluazioari buruzko guztia irakasle bakoitzak garatzen duen modulu-programazioan jasota dago.

2. Bigarren galdera ez dago argi, baldin bada ea modulu guztiak Dualean garatzen diren, bai, hala da. Ikastetxeak eta enpresak enpresan garatuko diren helburuak, gaitasunak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak erabakitzen dituzte, prestakuntza-zikloko curriculum ofizialaren arabera.

3. Ikasleen prestakuntzari eta ebaluazioari buruzko informazioa enpresei helarazteko modua ez da bakarra, ezta homogeneoa ere, ikastetxe guztietan; ikastearen barneko antolaketaren arabera da, eta irakasleak garatzen duen programazioaren arabera, hartarako autonomia baitute.

4. Lege-oinarria bai dagoela bateratua. Ikastetxe guztiek heziketa-zikloaren curriculum ofizialean jasotako ebaluazio-irizpideei jarraitu behar diete. Honako hauek arautzen dute:

- Hezkuntza Ministerioa (Estatu maila).
- Autonomia-erkidegoek; curriculumak garatzen eta egokitzen dute.

Lanbide modulu bakoitzak dituen ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak zehaztuta daude errege-dekretuetan (Estatua) eta autonomia-dekretuetan. Nola aplikatzen diren ez dago bateratua, ordea. Irizpide orokorrak erkideak badira ere, aplikatzeko eta haztatzeko modu zehatza aldatu egiten da ikastetxeen eta irakasleen artean.

Irakasle edo departamentu bakoitzak erabakitzen du ebaluatzeko zer jardura zehatz erabiliko dituzten.

Araudiak baimendutakoaren barruan, irizpide bakoitzaren ehunekoak edo pisuak ezartzen ditu. Horrek ahalbidetzen du irakaskuntza egokitzea taldearen errealitatera, ingurunera eta ikastetxearen baliabideetara.

5. Irakasle edo ikastetxe bakoitzak egoki deritzen euskarriak erabiltzen ahal ditu, baina ebaluazioaren azken erregistroa hezkuntza-administrazioak ezarritako euskarri ofizialetan egiten da batez ere. Nafarroako Foru Komunitatean EDUCA da.

Ikastetxe edo irakasle bakoitzak bere txosten ereduak erabiltzen ahal ditu, betiere curriculumaren irizpideak betetzen badituzte.

6. Irakasleek eta ikastetxeek EDUCA erabiltzen dute ikasleen informazioa biltzeko, eta enpresentzat integratzeko modua lantzen ari gara.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00282. Galdera, LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaia andreak LH Dualeko ikastetxeetako koordinazio-orduei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00282 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren testu bateratuak, 166. artikuluan, hauxe esaten du:

“166. artikulua. Funtzioak, profilak edo irakasle-taldeak Lanbide Heziketako Sistemaren ikastetxeetan.

1. Administrazioek, plangintzarekin bat etorritu eta bertan ezarritakoari jarraikiz, Lan Heziketaren zentroetan, batez ere lanbide heziketako zentro espezializatu eta zentro integratu eta, sustatu dute arian-arian egon edo sor daitezkeen figurak edo osa daitezkeen taldeak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, lanbide-orientazioaren, ekintzailetzaren eta gaitasun egiaztatze prozeduraren koordinazioaren arloko funtzioak sustatzeko eta garatzeko. Ondorio horietarako, bete beharreko funtzioak eta profilak edo lantaldeak, Administrazio bakoitzak zer erabakitzen duen, honako hauekin bat etorriko dira:

a) Lanbide Heziketako berrikuntzako koordinazioa edo arduraduna.

b) Lanbide Heziketako nazioartekotzeko koordinazioa edo arduraduna.

c) Ikastetxeko tutore bat bederen talde bakoitzerako, ikasle kopuruaren arabera.

d) Ikastetxeko lanbide-orientazioko, ekintzailetzako zerbitzuaren eta gaitasun profesionalak egiaztatze prozeduraren koordinazioa edo arduradun koordinatzailea, hartarako orientazio departamenturik eduki ezean.

2. (Ezeztatua)

3. (Ezeztatua)

4. (Ezeztatua)

5. Administrazioek ikastetxeko tutore dualen koordinazioa arautzen ahalko du, beste funtzio batzuekin batera, dimentsio duala aholkatu eta laguntzeko ikastetxearen eskaintza osoan, enpresen prospekzio gilearekiko koordinazioa ezar dezan, eta, hala badagokio, lan-poltsa dinamiza dezan.

6. (Ezeztatua)".

166. artikuluko puntu horiek ezeztatu dira Konstituzio Auzitegiaren epai baten ondorioz. (82/2025 K Aren epaia, martxoaren 26koa)

225/1998 Foru Dekretuak uztailaren 6koak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatzen dituenak, 21. artikuluko 1. puntuan honako hau ezartzen du:

"Lanaldi osoko irakasleek 20 irakastordu izanen dituzte astean. Horien artean irakaskuntza lan zuzenekoak eta irakastordu gisa zenbatzen direnak sartuko dira.

Salbuespenez, zilegi izanen da hogeita bi irakastordura ailegatzea, gehienez, betiere ikastetxearen ordu banaketak hala eskatzen duenean eta beti haren barrenean.

Aurreko atalean ezarritakoari salbuespen gisa, Lanbide Heziketako prestakuntzako zikloetan eskolak ematen dituzten irakasleek, lantokiko prestakuntzaren ordutegian, hirugarren hiru hilera, 22 irakastorduko lanaldia izanen dute astean, oro har. Orobat, kontserbatorioko musikari laguntzailearen lanak egiten dituzten irakasleei ere aplikatuko zaie lanaldiaren luzapen hori".

Era berean, 22. artikuluen 6. puntuak hau ezartzen du:

"Lantokietan prestatzeko moduluko arduraduna.

Lantokietan prestatzeko moduluko arduradunak hiru irakastordu egiten ditu astean Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Erregelamendu Organikoan ezarritako eginkizunetan. Ordu horiek irakasleek lantokietan prestatzeko modulua egitan zer ikasturtetan egin eta orduantxe sartuko dira".

Aipatutako artikuluen aplikatzearen ondorioz, Lantokiko Prestakuntzaren moduluak jasotzen zituen ikasketa-plana, oro har, indarrean izan den ikasturteetan, ikastetxeei 3 eskola-ordu esleitzen zitzaizkien, 26. artikuluan jasota. Bestalde, 21. artikuluan aipatutako irakasleei gainerakoei baino 2 eskola-ordu gehiagoko lanaldia esleitzen zitzaien. Praktikan eta ikastetxeetako plantillak ikasturte bakoitzerako egiteko orduan, irakasle-orduak kentzea zekarren, kontuan hartuta ikastetxe bakoitzari proportzioz zegozkionak. Murrizketa zetoarren, logikoa denez, egiten ahal zen eskola-orduen estaldura handiagoaren ondorioz, barne hartuta curriculumekoak, taldeak banatzeko orduak eta halakotzat hartutako beste batzuk, zeinak, irakasleek 22 orduko lanaldia izanik (2018ko Hezkuntza Kalitatearen aldeko ituna aplikatu zenetik 20 eskola-ordu dira).

2025/2026ko ikasturte honetan, Lanbide Heziketa Dualeko eredu berria nahitaez ezarrita, desagertu egiten da ikasketa-planetik Lantokiko Prestakuntza oro har egon beharra. Halere, aitzinerago adierazi bezala, behar diren antolamendu-neurriak hartu behar dira LH Dual berria ezartzean oraindik egin ez duten irakasleek ikasketak bukatzea eta titulua lortzea bermatu dadin.

Dauden behar berrien ondoriozko baliabide berrantolaketa honetan, 2025/2026 ikasturteari dagozkion plantillak egitean ez dira aplikatu ez Lantokiko Prestakuntzako orduen esleipenak, ezta dagokien irakasleentzako 2 eskola-orduko

gehikuntza ere. Irizpide hori aplikatzearen ondorioz, ziklo bakoitzeko tutoretza dualerako eskola-ordua esleitzearekin batera, ikastetxeek, osotara, kontratutako 200 irakasle-ordu gehiago dituzte aitzineko ikasturteetan zegoen irizpidea aplikatu izan balitz izanzen zituztenak baino.

Adierazi behar dut Erizaintzako Zainketa Lagun-garriak zikloari, zeinak 1990eko urriaren 3ko Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorren (LOGSE) babeseko ikasketa-plana baitu indarrean, berau ematen duten ikastetxeetan, Lantokiko Prestakuntzaren moduluaren arretarako hiru eskola-orduak eman zaizkiola. Irizpide horri eutsiko zaio LOGSEren ondotiko arau-garapenek oraindik ordeztu gabeko ikasketa-planak dituzten zikloetarako.

Tutoretza dualeko orduak ez dira murriztu, aitzinetik ez baitzegoen. 2024/2025 ikasturtean ikastetxeko tutore dualaren figura sortu zen, araudiak adierazi bezala, eta eskola-ordu bat esleitu zaio. Orobat, ikasturte hasierako jarraibideen 30. puntuan adierazi bezala (534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroan 2025/2026 ikasturtean Lanbide Heziketako Sistemaren gradu-eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolamendua eta funtzionamendua, lanbide-heziketako programa bereziei eta irakaskuntzei dagokienez, arautu behar dituzten jarraibideak), honako irakasle hauek izanzen dute eskumena enpresako edo pareko erakundeko prestakuntzaren plangintzan, kudeaketan eta garapenean:

- Ikastetxeko Kanpoko Lanbide Jardueren Departamentuko burua:

- Zikloko tutore DUALA
- Heziketa-zikloko koordinatzailea
- Taldeko tutorea

- Azkenik, ikasturte bakoitzeko ikasleen enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren antolamenduan, kudeaketan eta garapenean ere hartuko dute parte heziketa-zikloaren dagokion mailan eskolak ematen dituzten irakasle guztiek.

Hori horrela, askotariko pertsonak esku hartzen dute enpresako prestakuntzaren jarraipena kudeatu, planifikatu eta egiteko.

Ikasturte hasierako jarraibideen 32. puntuak hau adierazten du:

«Bai Lanbide Heziketako ikastetxean, bai enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzan lantzen diren ikaskuntzaren emaitzen jarraipena eta ebaluazioa koordinatuta egiten dituzte lanbide-heziketako ikastetxeko edo enpresako tutore dualek, ikaskuntzaren emaitza partekatuak barne hartzen dituzten curriculumen lanbide-moduluko edo moduluetakoa irakasle, hezitzaile eta aditu ardurdun bakoitzarekiko zuzeneko lankidetzan.

Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenean zuzeneko lankidetzak egiteko, zuzendaritza-taldeak eskola-ordutzat hartutako bi orduetako bat, zeinak baitatuz Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunaren ondorioz zuzeneko irakaskuntza murriztetik, esleitzen ahalko die jarraibide honetan zerrendatutako irakasleei, Ekitatearen eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunean ezarritakoarekin bat etorritik. Orobat, eta aintzat hartuta Ekitatearen eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunean xedatutakoa, eskola-ordutzat hartutako bigarren ordu bat esleitzen ahalko da xede horretarako, irakasle-taldeek edo departamentuek berek proposatuta. Ordu horiek irakasleen ordutegi pertsonalean kontsignatuko dira, eskola-ordutzat hartutako orduen atalean, "LH-D" siglak erabilita.

Bestalde, enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenerako esleitzen ahalko dira ikastetxeko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen ordu osagarriak, hau da, astean zenbatzeko eskolarik gabeko ordu osagarriak. Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzarako ordu horiek irakasleen ordutegi pertsonalean kontsignatuko dira, astean zenbatzeko "ordu osagarriak" atalean, "LH-D" siglak erabilita».

Horrenbestez, ikastetxeari autonomia uzten zaio egoki iritzitako orduak esleitzeko, dituen ezaguerien eta ikasle bolumenaren arabera.

Enpresako prestakuntza jasotzen ari diren ikasleen jarraipenerako esleitutako orduetan, jarraipena telefonoz, posta elektronikoz, bideokonferentziaz eta aurrez aurre, edo egoki iritzitako bestelako bideak erabiliz, egiten ahal dute jarraipena.

Moduluen eta curriculumen plan zaharrak maila iraungitzen dira, eta baliokidetasun akademikoak edo profesionalak ematen dira gaitasun-estandarrei lotutako modulu berriei. Lantokiko Prestakuntzaren moduluari eutsiko zaio oraindik indarrean dagoen Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorren, 1990eko urriaren 3koak, araututako prestakuntza-zikloetan.

Lantokiko Prestakuntzako ikasleak taldeko ikasleak dira, horregatik, orain arte egiten zen bezala, arau-aldaketaren ondoriozko aldi iragankorretan, errehabilitazio-plana prestatzen da moduluak bukatu gabe dituzten ikasleentzat. Zikloko irakasleak arduratzen dira planaz eta haren jarraipenaz. Kasu honetan, irakaskuntza-kargarik ez duen moduluak izanik, eta araudiak adierazten duen bezala, siste-

mako beste elementu batzuetara igarotzen da, eta edozein irakaslek du betebeharra eta aukera ikasle- en jarraipenaz arduratzeko. (Ikus LOGSEtik LOEra arteko aldi iragankorra).

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00283. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Osasun Zientzien eraikin berria egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00283 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien eraikin berria egokitzearen gainean. Bada, Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Baieztapen hori lotuta dago Nafarroako Unibertsitate Publikoak iragan udatik egiten ari diren urratsekin, orduan administrazio-izapideak hasi baitziren irekitzeko lizentziak lortzeko eta zegozkien horniduren alta emateko.

Aldi berean, baimenak kudeatzen ziren bitartean, eraikineko guneak hornitzen hasi da, eta sartu egin dira altzariak (mahaiak, aulkiak eta abar), proiektoreak, ordenagailuak, sare informatikoa, laborategiak eta behar diren bestelako baliabideak.

Irakaskuntza eta prestakuntzako jarduerari dagokienez, pixkanaka eramanen dira eraikin berri- ra, behar diren baimenak eskuratu eta ekipamen- duaren instalazioa bukatu ahala.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentu- ko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatuta- koa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00284. Galdera, goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak goi-kargudunek maiatzaren 19az geroztik aldatutako edo aldatzeko eskatutako telefono mugikorrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak PES-11-25/00284 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, maiatzaren 19tik izandako goi-kargudunen telefono mugikorraren aldaketen eta aldaketa-eskaeren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Esandako egunetik Nafarroako Gobernuak bi goi-kargudunek eskatu dute telefono mugikorraren aldaketa.

Goi-kargudun eskatzailea	Kargua
Molina Roig, Elga	Zuzendari nagusia
Iturri Ruesga, Julio	Kabineteburua

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00285. Galdera, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espedientei eta ezarritako zehapenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak 2021eko urtarrilaren 1az geroztik ingurumenaren arloan egindako salaketei, abiarazitako zehapen-espedientei eta ezarritako zehapenei buruz egindako galderaren

erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00285 idatzizko galdera egin du, 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina ingurumenaren arloan paratutako salaketen, zehapen-espedienteen eta zehapenen gainean. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau erantzuten diet egindako galderei:

Galderei erantzuten zaie 11-25/PEI-00626 informazio-eskaeran (2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abuztuaren 4ra) emandako informazioa erabiliz.

1.- Nafarroako Gobernuaren Basozainak atalak egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen 1.353 ikuskapen-aktak ekarri dute Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ikuskatzeko prozedura irekitzea.

2.- Foruzaingoaren Ingurumen Brigadak egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

Nafarroako Foruzaingoak egindako 879 salaketak ekarri dute Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ikuskatzeko prozedura irekitzea.

3.- Guardia Zibileko SEPRONak egin eta Departamentuak aurkeztutako zenbat salaketa kudeatu ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2021eko urtarrilaren 1etik gaur arte?

Guardia Zibilaren SEPRONak egindako 634 salaketak ekarri dute Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ikuskatzeko prozedura irekitzea.

4.- Zenbat zehapen-espediente abiarazi ziren salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzak egindako salaketa bakoitzaren ondorioz?

Aitzineko galderetan zehaztutako salaketen ondorioz 2.031 zehapen-espediente (SAMA) ireki ziren, eta haietatik:

- 985 espediente Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen ikuskapen-akten eta salaketen ondorioz.

- 675 espediente Nafarroako Foruzaingoaren salaketen ondorioz.

- 371 espediente SEPRONaren salaketen ondorioz.

Aitzinekoa alde batera utzita, adierazi beharra dago anitzetan Basozainak-Ingurumena Zaintzeko

Taldearen, Nafarroako Foruzaingoaren eta SEPRONaren salaketak gertaera berei edo instalazio berari dagozkiela, eta halakoetan zehapen-espediente bakarra hasten dela. Horrenbestez, baliteke espediente bat hastea, kasurako, Foruzaingoak paratutako salaketa baten eta Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen ikuskapen-akta baten ondorioz.

Gauza bera gertatzen da gertaera batzuegatik arau-hausteak badaude, eta halakoak arau-hauste jarraitutzat hartzen ahal badira, harik eta zehapen-espedientea hasten ez den edo aribidean den zehapen-espedientea bukatzen ez den arte. Halakoetan baliteke zenbait salaketa ere egotea eta haiek zehapen-espediente bat hastea ekartzea.

Gainera, kontuan hartu behar da Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko Ingurumen Ikuskapenen Atalak eta Hondakinen Atalak ere egiten dituztela ikuskapen-bisitak ingurumen-baimen integratua, bateratua edo hondakinak kudeatzekoa duten instalazioetara, eta ikuskapenetatik ikuskapen-aktak ere egiten direla, eta balitekeela haien ondorioz zehapen-espedienteak hastea. Gerta liteke, orobat, instalazioen gainean Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen, Foruzaingoaren eta Sepronaren salaketak eta aktak ere izatea. Hortaz, baliteke egotea, orobat, espediente bat, kasurako, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen akta baten eta Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren eskaera arrazoitu baten ondorioz hasitakoa.

5.- Abiarazitako zehapen-espediente horietako zenbatek eragin zuten zehapenak ezartzea, salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzeko?

Hasitako zehapen-espedienteetatik zenbatek ekarri zuten organismo salatzailek zehapenak paratzea egindako galderaren erantzuna lortzen ahal da 11-25/PEI-00626 informazio-eskaeratik.

Alabaina, aitzineko galderan adierazi bezala, arraz zaila da informazioa ateratzea, gerta bailiteke zenbait salaketak edo ikuskapen-aktak zehapen-espediente bakarra ematea, edo urte batean egindako salaketa batek hurrengo urtean espedientea hastea ekartzea, etab.

Era berean, gerta liteke zehapen-prozedura iraungitzea eta beste zehapen-prozedura bat hastea, betiere arau-haustea preskribatu ez bada. Horregatik, salaketa edo ikuskapen-akta bakarrak baliteke zehapen-prozedura bat baino gehiago irekitzea ekartzea.

Horregatik, Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalaren urteko memorian, urte bakoitzean irekitako zehapenekin bat etorritik egiten da datuen

azterketa. Hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean irekitzen diren zehapen-espeditentak; izan ere, baliteke espeditentak hasia aitzineko urteetako salaketan eta akten ondorioz.

Kasurako, 2022an irekitako 575 zehapen-espeditentetatik, 3 zegozkien 2020ko salaketei eta aktei, 16, 2021. urtekoei, eta 556, 2022. urtekoei.

Bestalde, memoriak egiten direnean badaude oraindik aitzineko espeditentak bideak, hortaz, jakiteko zenbat espeditentek zehapenekin bukatu duten eta zenbatek ez, urtean bukatu diren espeditentak hartzen dira erreferentziatzat. Hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bukatu diren zehapen-espeditentak hartzen dira kontuan, balitekeelako urte batean aitzineko urteetako espeditentak bukatzea.

BUKATUTAKO ESPEDIENTEAK	2021	2022	2023
SAMA 2017	1	1	0
SAMA 2018	2	0	2
SAMA 2019	34	15	3
SAMA 2020	468	23	2
SAMA 2021	184	330	33
SAMA 2022		294	247
SAMA 2023			236
GUZTIRA	689	663	523

Aitzineko guztiagatik, galdetutakoari zehatz-mehatz erantzuteak behartuko luke berriz ere aztertzea 2021. urtetik hasi diren ia 2.500 zehapen-espeditentak, foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak eskatutako parametroak edo balioak erabiliz.

Baldin eta foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak hala nahi badu, Excel bat ematen ahal zaio, barne hartuta 2021. urtetik hasitako zehapen-espeditenteen datu guztiak, nahi dituen datuak eskuratu ditzan.

Nolanahi ere, hona hemen zerrendatuta datu-rik garrantzitsuenak, egindako galderari erantzuteko balio dutenak:

	2025	2024	2023	2022	2021
BASOZAINAK-INGURUMENA ZAINTEKO TALDEA	98	206	183	255	343
FORUZAINGOA	25	132	169	195	259
SEPRONA	25	97	70	94	131
ZERBITZUAK	41	23	41	24	23
BESTE BATZUK	2	7	11	7	5
ZEHAPEN ESPEDIENTEAK, GUZTIRA	224	465	474	575	761

URTEA	ZEHAPEN-ESPEDIENTEEN EGOERA		GUZTIRA
	ARIBIDEAN	BUKATUAK	
2021	1	760	761
2022	3	572	575
2023	14	460	474
2024	97	368	465
2025	139	85	224

	2022	2021
Zehapen-prozedura hasi gabe artxibatuak	% 9	% 7
Zehapena ebatzita	% 86	% 85
Zehapenik gabe ebatzita	% 5	% 8

Gaur egun 2023. eta 2024. urteetako memoria egiten ari da, eta datuak ez daude eskuragarri beraz.

6.- Zer pertsona juridiko eta fisikori jarri zaizkie zehapenak eta zein izan da horien zenbatekoa, salaketak egin dituzten organismoetako bakoitzeko?

	2025		2024		2023		2022		2021	
PERTSONA FISIKOA	143		344		348		468		632	
PERTSONA JURIDIKOA	81		121		126		107		129	
GUZTIRA	224		465		474		575		761	
	P. fisikoa	P. juridikoa	P. fisikoa	P. juridikoa	P. fisikoa	P. juridikoa	P. fisikoa	P. juridikoa	P. fisikoa	P. juridikoa
BASOZAINAK-INGURUMENA ZAITZEKO TALDEA	67	31	131	75	121	63	200	55	281	62
FORUZAINGOA	50	8	122	10	151	19	181	14	233	26
SEPRONA	18	7	80	17	65	6	80	14	111	20
ZERBITZUAK	6	35	5	18	2	36	1	23	2	21
BESTE BATZUK	2	0	6	1	9	2	6	1	5	0
GUZTIRA	143	81	344	121	348	126	468	107	632	129

Zehapenen zenbatekoa pertsona fisikoaren eta juridikoaren arabera eta 2021. urtetik gaur arte zehatz-mehatz lortzea ez da aisa lortzeko moduko datua. Aitzinetik esan bezala, 2.500 zehapen-espedientetik goiti ireki ditu Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalak 2021. urtetik, eta gehien-gehienak isuna paratuta bukatu badira ere, egia esateko, gerta zitekeen zehapena ebatzi ondotik hura baliogabetzea edo errekurtsio-bidean baiestea, etab.

Aitzineko erantzunean adierazi bezala, foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak nahi badu, Excel bat ematen ahal zaio nahi dituen datu guztiekin, 2021. urtetik hasitako zehapen-espedienteen Extr@ programatik esportatzen ahal direnekin, datuak azter ditzan eta galderaren erantzunak lor ditzan.

Ildo horretatik, gogorarazi behar da Parlamentuaren Erregelamenduan eta Parlamentuko Zerbitzu Juridikoaren 2020ko urtarrilaren 17ko Txostenean xedatutakoari jarraikiz, foru parlamentariaren informazioarako eskubidea gauzatzen da aitzinetik badiren datuez, txostenez edo dokumentuez osatua dagoen xedearen gainean, eta berarekin ez dakar errekerimendua jasotako administrazioak txosten berriak egiteko betebeharririk izatea, ez eta eskatzaileak eskatutako parametro edo balio berriak biltzeko betebeharririk izatea ere.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00286. Galdera, NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak NICDOk Adentro Construimos, SL merkataritza-sozietateari prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatutako obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera idatzi hauek egin ditu (11-25/PES-00286):

Ba al dago justifikazio-txostenik, NICDOk Adentro Construimos SL merkataritza-sozietatearekin zenbait obra-enkargu Kontratuei buruzko Foru Legearen 80. artikuluan adierazitako prozedura sinplifikatuaren arabera kontratatu izanari buruzkorik? Halakorik baldin badago, zerk justifikatzen ditu kontratazio horiek? Nork egin zuen, baldin eta halakorik

badago, justifikazio-txostena? Bada, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut esandako galderei erantzunez:

Nafarroako Gobernuak Navarra Impulsa Cultura Deporte y Ocio SL (NICDO) sozietateari helarazi dio Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Nafarroako Parlamentuko lehendakariari eginiko informazio-eskaera (11-25/PES-00286).

Informazioaren konfidentzialtasunaren babesean, jakinarazten dizugu NICDOk ez duela prozedura sinplifikatu bidezko kontrataziorik Adentro Construimos SL enpresarekin.

Ramón Urdiáin Esparza

Zuzendari kudeatzailea

Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 22an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00287. Galdera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazienteei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Nafarroako Klinika Unibertsitariora 2024an bideratutako kardiologiako pazienteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 5eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak galdera egin du Nafarroako Unibertsitatea Klinikara 2024an bideratutako kardiologiako pazienteei buruz, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00287). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zenbat pertsona bideratu dira 2024an Nafarroako Unibertsitatea Klinikara "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, lehen kontsultarako, Kardiologiako espezialitatean? Zer

irizpide medikorekin edo zer patologia-zantzurekin egin dira? Zer proba diagnostiko eskatu ziren, eta zer kostu izan du pertsona bakoitzeko?

Kardiologiako espezialitatetik, 2024an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Unibertsitatea Klinikara igorriak kardiologia-espezialitateko "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren kargura, aurrerantzeko kontsultetarako? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

Kardiologiako espezialitatetik, 2024an zenbat pertsona izan dira Nafarroako Unibertsitatea Klinikara ebakuntzarako igorriak "Itxaron-zerrendetarako estrategiak" aurrekontu-partidaren

kargura? Pertsona bakoitzeko zer kostu izan du horrek?

Itxaron-zerrenden ondorioz Kardiologia Zerbitzuan artatu diren pazienteei dagokienez Nafarroako Unibertsitatea Klinikak 2024ko urtariletik abendura bitarteko hilabeteetan egin zuen fakturazioari buruz, hona informazioa:

1.- Urtean izandako paziente desberdinen kopurua, bereizirik ea zerbitzu fakturatua lehenbiziko kontsultagatikoa, berrikuspenagatikoa edo kirurgia/ospitalizazioagatikoa izan den:

	Paziente desberdinak, guztizkoa
Paziente desberdinen kopurua	289
<i>LEHENBIZIKO KONTSULTA (Kirurgiarik/ospitalizaziorik gabekoa)</i>	254
<i>BERRIKUSPENAK (Lehenbiziko kontsultarik eta kirurgiarik/ospitalizaziorik gabekoak)</i>	8
<i>KIRURGIA eta/edo OSPITALIZAZIOA</i>	27

2.- Honako informazio hau da 2024ko aldian fakturatutako zerbitzuen gastuari buruzkoa:

ZERBITZU FAKTURATUAK (ez-pazienteak)	FAKTURATUEN KOPURUA	
<i>LEHENBIZIKO KONTSULTAK</i>	280	66.483,20
<i>BERRIKUSPENAK</i>	20	3.836,60
<i>PROBA DIAGNOSTIKOAK</i>	46	14.622,00
<i>OSPITALIZAZIOA (MEDIKAZIOA BARNE)</i>		10.691,62
<i>KIRURGIA (PROTESIAK BARNE)</i>	23	297.844,56
		393.477,98

Biderapen-irizpideak dira oinarritzko osasun-laguntzatik eta ospitalizazio-zerbitzutik –kasuaren arabera– biderapena egiten duten fakultatiboek erabiltzen dituztenak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos